

Bergara. Belaunaldien arteko trukaketa

Lekua: Bergara (Gipuzkoa)
Lan-mota: Gizartegintza. Hirugarren adinekoen animazioa.
Helburua: Animazio-ekintzak egitea hirugarren adinekoentzako egoitza batean
Datak: uztailaren 1etik 15era // uztailaren 16tik 30ra
Adina: 18-26 urte
Plazak: 20
Esparrua: Estatu mailakoa
Hizkuntza: Gaztelania eta euskera
Kuota: 72 €

Bergara Gipuzkoako mendebaldeko ertzean dago, Debagoiena izeneko eskualdearen barruan. Gipuzkoako bigarren udalerria da eremu-zabaleran (77,05 km²), eta komunikabide-ardatz garrantzitsu batean kokatuta dago: ordubete baino gutxiago Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetarara (Donostia, Bilbo eta Gasteiz). Gainera, kostaldeko Deba eta Getaria herri ederretatik 30 km baino ez dago.

Mendi berdez inguratua, industria-iragan aberatsa du Bergarak (1497. urtetik daude horren lekukotasunak), eta harro gordetzen du tradizio horren oroitzapena. Merkatarien bidegurutzak izan zen Erdi Aroan, eta puntako irakaskuntza-gunea Ilustrazio garaian (XVIII. mendean). Mende bat geroago, karlistaldien gerraleku, eta haien amaierako Bergarako Besarkada famatuaren agertokia.

Bergarak gaur egun arte gorde izan du bere herrigune historiko monumental ikusgarria, jauretxe bikainez eta eliza eta eraikin historiko paregabeek hornitua, batzuk gotikoak, barrokoak edo Ernazimendukoak. Beste askoren artean, aipatzekoak dira Ariznoako San Pedro parrokia, Olaso dorrea eta Egino-Mallea eta Irizar jauregiak.

Udalerrriak, gainera, naturaz eta aisialdiaz gozatzeko toki asko, entitate osatzen duten 13 auzuneetan barreiatuta. Bertan baserri ederrak, ermitak eta dorretxeak aurki daitezke, euskal arkitektura tradizionalaren erakusgarri. Ibilaldiei dagokienez, merezi du Deba Arroa eta Urolarena bereizten dituen mendilerroari jarraikitzen dio tumulu megalitikoaren bidezidorrari heltzea, edota Vasco-Navarro trenbide zaharraren arrastotik doana.

Udalak bertako herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen artean, aipa dezagun hirugarren adinekoentzako "Mizpirualde" egoitza, Bergarako bertako eta inguruko herrietako 100 lagunetik gora hartzen dituen.

Estekak ikusteko sakatu "Ctrl" eta egin click testuaren gainean.

<http://www.bergara.net/>

LANAREN DESKRIBAPENA

Auzolandegi honen bidez, Bergarako udalak nahi du gazteen eta Mizpirualdeko adindunen arteko harremanak piztea eta estutzea; eta bestalde, egoitzako egoiliarrek, gazte boluntarioekin bizitako jarduera ludikoen biartez, uda honetan bizipen positiboak izan ditzatela.

Boluntarioen lana izango da laguntza eta animazio ekintzak egitea Mizpirualde egoitzan, adineko jendearen parte hartze aktiboa bultzatzeko, bakartasunari aurre egiteko, garapen psikomotorea lantzeko, oroimena, eta giza-harremanak sustatzeko. Boluntarioek psikologo, animatzaile eta monitorea osatiriko talde baten zuzendaritzapean jardungo du.

Auzolandegiaren helburuak hauek dira:

- Belaunaldien arteko harremanak eta ezagutza bultzatzea.
- Uda sortzaile baten esperientzia eskaintzea egoiliarrei, bakoitzaren gaitasunaren arabera.
- Egoiliarren eguneroko giroa alaitzea.
- Herritarrak kontzientziatzea adinekoen parte hartze aktiboaren garrantziaz.
- Oroipen historikoa errekeratzea eta berari eustea, adinekoen ahoz ahoko ekarpenak eta ekarpen kulturalak jasoz.

Egingo diren ekintzak, zehazki, hauek dira:

- Psikomotrizitate-jarduerak.
- Adindunei prentsa irakurtzen laguntzea.
- Haiekin kartetan egitea.
- Ibilaldietan eta paseoan laguntzea.
- Aisialdi eta jolas jarduerak, jaiak eta taldekako jolasak antolatzea.
- Egoiliarren arteko harremanak estutzeko jarduerak prestatzea eta kanpoko munduarekin duten kontaktua aregotzea.

Gazteak taldeka banatuko dira, hartara egoiliar guztiekin lan egin ahal izateko, autonomoak direnekin, mendekotasunen bat dutenekin eta mendekotasun handia dutenekin.

ANIMAZIO-JARDUERAK

Animazio-taldeak proposatuko dituen ekintzen helburua izango da auzolandegian parte hartuko dutenen arteko harremanak bultzatzea eta Bergarako herria eta herritarrak hobeto ezagutzea.

Gainera zenbait ekintza prestatuko ditu Euskal Herriko kultura eta ohiturak ezagutarazteko (kirol-jarduerak, jolasak, txangoak kostaldera, kultur bisitaldiak...).. Animazio-taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo egiteko zakua
- Burkoa (behar baldin baduzu)
- Dutzarako eta igerilekurako xukadera.
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirol egitekoak
- Kapelaren bat eguzkitarako
- Bainu-jantzia
- Bizkar-zorroa edo motxila txikia, txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

Parte hartzaile bakoitzak eraman beharko du:

- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaporteak.
- Osasun Txartel Indibiduala.

AUZOLANDEGIA ETA LOTAKO TOKIA NON

Auzolandegiaren kokapena: "Mizpirualde" zaharren egoitza (Madalena enparantza, 1), Bergarako herrigunean, Gasteiztik 45 km-ra, Bilbotik 59 km-ra eta Donostiatik 61 km-ra.

Lotako tokia: Udal Gaztelekuan. Sukalde eta jantokia, bi logela eta elkartzeko gunea.

NOIZ BERTARATU

Txanda bakoitzaren lehen egunean, **Bergarako Udaletxean**. Auzolandegian parte hartuko duten gazteak eramango dituzte, Bergarako Udaletxean harrera jaso eta gero.

Topalekura iritsi ezin denak, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du Bedaioko auzolandegira.

NOLA IRITSI

Sakatu "Ctrl" eta egin click testuaren gainean:

[Bergara](#)

[Bergara kokatzeko mapa](#)

Autobusez:

Bilbotik, Gasteiztik, Donostiatik eta Iruñetik:

PESA autobusak

(Bergaran jaitsi, Ibargarai kalean)

[Ordulegiak kontsultatzeko](#) (Sakatu "Ctrl" eta egin click testuaren gainean)

PESA autobusak Web orria : www.pesa.net

✉ atencionusuario@pesa.net

Bezzeroari arretarako zenbakia ☎ 902 10 12 10

Bergarako turismo-bulegoa ☎ 943 77 91 28

✉ turismo@bergara.net

AUZOLANDEGIA NOIZ AMAITZEN DEN

Auzolandegia azken egunean amaituk oda, gosaria haratu eta gero, goizeko 09:00–10:00 bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak gazte bakoitzari istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguruia egingo dio. Dena den, gaixotasun berezirik edo ahalmen-urritasunik edukiz gero, horren berri eman behar zaio Eusko Jaurlaritzari, Jaurlaritzak gazteak behar dituen estaldurak sar ditzana seguru polizan.

Gazte bakoitzak bere **osasun-txartela** ekarri behar du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA HELBIDE ELEKTRONIKOA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel: **945 01 95 01 – 945 01 95 36**
- Helbide elektronikoa: gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi <http://www.gazteaukera.euskadi.net> webgunean (ikusi Auzolandegiak – Arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazioa guztia <http://www.gazteaukera.euskadi.net> webgunean duzu (ikusi Auzolandegiak- *Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketaren eskatzea* izeneko atalean).